

EKOLOGISTEK KEZKA IZAN ARREN NUCLENORREK DIO «MUNDUKO ONENEN PAREAN» DAGOELA

# Mende laurdena Garoñarekin

Gaur 25 urte abian jarri zutela Garoñako zentral nuklearra. Nuclenorrek dioenez, urteotan gutxika hobetu eta «munduko onenen parera» heldu dira. Ekologistentzat denbora ez da aski izan emergentzia planak egiteko, inguruetan isotopo erradioaktiboak sumatu arren.

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

ARGI DAGOEN bakarra da 25 urte dituela. Hortik aurrera nor bere diskurtsoa darabil. Jon Kepa Iradi zentral nuklearraren aurkako mugimenduko partaideak «errentagarritasun ekonomikoa» aipatu du zentralaz arduratzen den Nuclenor enpresak erakutsi irizpide nagusi legez: «Errentagarritasunari eutsi diote, eta beste batzuk, ingurugiroa edo herritarrak kutsatzeko arriskuak, kasu, bazterrerara utzi dituzte. Horren froga nabarmena da 1992ko ikerketa batean isotopo erradioaktiboak sumatu zirela Tobalina ibarreko ur, alga eta lokatzetan. Hala ere, ez da sekula azterketa epidemiologikorik egin». Iradiren arabera, 25 urte ez dira nahikoa izan, halaber, inguruko emergentzia plana burutzeko, «1983. urtera arte istripu arriskuak aintzat hartzeke eman ondoren».

Antonio Cornado zentralako komunikazio arduraduna da, eta, jakina, beste iritzi batekoa. «Hemen lehen irizpidea segurtasuna da, errentagarritasunaren gainetik. Guk bi kontuak bateagarri egin nahi ditugu, baina zerbaiti lehentasuna emantekotan, segurtasunari ematen diogu, horretan gastatzen baitugu inbertsioen herenak», esan digu.

Hogeita bost urteotan ezaugarriak ematekotan, zentralaren «gutxinakako hobetzea» izango litzatekeela esan digu. Cornadoren hitzetan, «Garoña hasi zenean proiektu pilotua zen kasik, baina ikasiz joan gara, eta gaur egun heldutasun sendoan gaude, munduko onenen parean baikara eraginkortasunari dago-kionez». Izan ere, zentrala geldirik da joan den asteaz geroztik, 502 egunetan jarraian lanean jardun ondoren: «Gure errektore motetan bi aurretiko beste-rik ez daude mundu osoan bostehun egunetan lanean izanda-koak».

Iradi 500eko klubaren bestaldea agertarazi nahi du. «Egia da energia ekoizpen maila handi batera heldu dela, baina esaten ez dena da zenbat eta lan gehiago egin orduan eta desgaste, arrisku eta hondakin gehiago. Errekorrak etekin diren aldetik, besterik ez da ikusten», kritikatu du.

## Azken bolada honetako berritasunak

Iradi, baina, berritasun batzuk ikusi ditu azken bolada honetan. Iragan urtean, kasu, Nafarroako, Aragoiko eta Errioxako parlamentuek Garoña ixtearen aldeko ez-legezko proposamenak plazaratu zituzten. «Esanguratsua da, ez baita mugimendu antinuklearraren betiko ahotsa», esplikatu du Iradi. Garoñan, berriz, «jokabide populistatzat eta guztiz axolagabetzat» hartu dute. Aipatu ganbarak eskuinaren esku



Gasteizen Garoñako norabidea markatzen duen kartela.

OLALDE

## Jon Kepa Iradi zentralaren aurkako mugimenduko kideak «errentagarritasun ekonomikoa» aipatu du Nuclenor enpresak erakutsi irizpide nagusi legez

direla eta, alderdien arteko borroka izan daiteke tartean.

Iradi beste aldaketa batzuk daudela ikusi du: «Burgosko iparraldean indar handiko parke eolikoak proiektatzen ari dira; neurketak nahiz eskaerak Gaztelako Juntari eginda daude, eta

gogoan izan behar da 200 megawatteko egitasmoak direla. Litekeena da Garoñako nuklearraren alternatiba izatea». «Alternatiba? Inolaz ere ez. Baliteke osagarriak izatea, baina alternatiba ez, egungo teknologiak ez baitu posible egiten emaitza onik

lortzea. Izan ere, Espainiako plan eoliko osoaren errendimendua soil-soilik Garoñak ematen duen adinakoa da gutxi gora-behera», erantzun digu Garoñakoak.

Baina guztien gainetik, zentralak eragiten dituen hondakin erradioaktiboak buruzko eztabaida nagusi da azkenaldion. Ekologisten ustez, Garoñak gaur betetzen dituen 25 urteak dira iraupen logikoa, baina Espainiako zentralak 40 urtez jarduteko asmoak indarrean dira hondakinaren auzia nola bideratu jakin ondoren.

## 2016. urtera arte

Garoñako zentralako hondakinontziak duen edukieraren hiru laurden baino gehiago beterik du, eta 1998. urtea aipatu izan da guztiz betetzeko epe gisa. Hala ere, Garoñatik egiaztatu dutenez, Espainiako Industria Ministerioak oniritzia eman dio Espainiako Estatuko zentralak ontzien edukiera handitzeko planari. Garoñaokari beste 18 urtean hondakin erradioaktiboak jasotzeko modua eskainiko dio, hots, 2016. urtera arte. «Ez da ontzian obrarik egin beharko, neurriak berberak izango baitira,

eta berez helburua elementu erregaien kokapena berriro taxutzea da, beti ere egungo edukiera bikoizteko asmoarekin», adierazi du Garoñako komunikazio arduradunak. Horren arabera, ordea, edukiera teknikoaz gainera, gutxieneko data bat hartu behar da kontuan oraingoz: 1999. urteko uztaila. Ordura artekoa da egungo ustiaketa baimena, eta Cornadok dioenez, «1999ra arte guztiz ziurtaturik dagoela esan daiteke, behintzat istripu batek edo erabaki politiko batek kontrakoa agintzen ez

badu».

Ondorioa argi dago: zentralen bizitzaren luzapena. «Nazioarteko joera da nuklearraren jarduna luzatzea, berririk erakitzea errentagarria ez dela ikusirik», dio Jon Kepa Iradi. Horrek adibide grafikoa jarri digu ontzietan «egungo geldialdi egiten ari diren lan nagusia» ulertu ahal izateko: «Aparkaleku batean toki gehiago izateko auto bakoitzarentzako marrak apur bat hurbiltzea bezala da nolabait». Horren eraginez, 25 urteko bizitza 40 urteko bihurtu da, eta bide batez, zabor-

tegi nuklearraren inguruko eztabaidari gaurkotasuna kendu egin zaio. Izan ere, Enresak (Hondakin Erradioaktiboen Enpresa) alde batera utzi du zabortegia epe laburrean eraikitzeke egitasmoa, hondakinak biltzeko beste era batzuk bilatu ondoren. Garoñatik 15 bat kilometrora dagoen Gesaltzan lasaia egongo dira, biltegia bertan egiteko posibilitatea plazaratu ondoren, aipatu herriak hondakin mota hauen aurka oso eraginkorra den gatza erruz duela aprobetxatuz, besteak beste. X

## Garoñako zentrala ixteko eskatu dute Eguzkik eta Greenpeacek

Hainbat protesta ekintza egingo dituzte gaur eguerditik aurrera Gasteizen

Erredakzioa / Gasteiz

BURGOSEN dagoen Santa Maria de Garoñako zentral nuklearrak hogeita bost urte bete dituela eta, zentralaren instalazioak behin-betiko ixteko eskatu zuten atzo Eguzkik eta Greenpeace talde ekologistek.

Eguzkik zentral nuklear honen aurka hainbat ekintza antolatu ditu gaurko Gasteizen. Horrela, gaur eguerdian Andre Mari Zuriaren enparantzan parodia antinuklear bat egin ostean, giza katea osatuko dute Arabako hiriburuko kaleetan zehar protesta gisa.

Talde ekologista horretako ordezkarien arabera, «zentrala berehala ixteko eskatzen dugu, kaltetutako ia udal eta legebiltzar gehienek ildo horretan hartu dituzten erabakiek duten legitimitatean oinarrituz». Horrela adierazi zuten atzo eskaini prentsaurrean.

Eguzkikoek esan zuten «ulergaitza» dela Garoñako ustiaketa beste lau urtez luzatzearen alde Espainiako Industria eta Energia Ministerioak hartu berri duen erabakia. Bereziki, nabarmendu zuten, «Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak bere azkeneko txostenean ikuskaritza lanak eta zainketa areagotu beharra jasotzen zuten».

Juan Lopez de Uralde Greenpeaceko bozeramailearen hitzetan, bestalde, «oso arriskutsua da mila eta bat arrakala dituen Garoñako zentral nuklearrak funtzionamenduan segitzea. Gure aginduz, Hannoverko Gruppe Ekologiek egindako azterketan jasotzen denez, zentrala berehala itxi behar da funtzionamenduan edukitzea oso arriskutsua delako» argudiatu zuten.

«Erabateko arduragabeberia da herritarren eta ingurugiroaren segurtasunaren lepotik Espainiako zentral nuklearraren iraupena luzatzea. Horretara bideratzen diren inbertsio erraldoiak energia berrigarriak garatu eta martxan jartzera bideratu beharko liriteke», esan zuten.

Talde ekologista honek Espainiako zentral nuklear guztiak «pixkanaka baina etengabe» ixten joateko exigitu zuten «beharrezkoa delako». Hain zuzen ere, bi zentral zaharrenak diren Garoñatik eta Zoritakotik (Guadalajara) hasita.

Azkenik, Greenpeacek ontzietan jo zuten Enresak hilerri nuklearra biltzeko egitasmoak gizartearen presioaren eraginez bertan behera utzi behar izana. X